

Unibertsitatea Euskalduntzeko Taldeak aurkezpen jendetsua egin du Gasteizen

Euskal Herri osotik etorritako ikasle oldeak hartu zuen parte manifestaldian

Unibertsitatea Euskalduntzeko Taldeak Euskal Herri osoko ikasleak bildu zituen atzo Gasteizen egin mobilizazioan. Lehenik Lakuan eta Eusko Legebiltzarrean gero, unibertsitatea euskalduntzeko eskatu zuten talde honen aurkezpen publiko jendetsuan.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Unibertsitatea Euskalduntzeko Plataformak deiturik, goizeko 11ak aldera hasi ziren biltzen ikasleak Gasteizko Europa gizearte-etxean. Orotara 3.000 inguru zirela —horietatik erdiaedo Arabako kanpusetik kanpotik etorriak—, Lakuan dagoen Eusko Jaurlaritzaren egoitzara joan ziren manifestazioan, 'Unibertsitatea euskaldundu' zioen pankarta buruan zela.

Hala Lakuaraino nola gero Eusko Legebiltzarrean, manifestatzaileak giro alaian ibili ziren pare bat orduz Gasteizko kaleetan. Trikitiak eta musikak lagundurik, umorea ere ez zen falta izan, adibidez 'Buesa ez izan koldarra eta moztu behingoz



Euskal Herriko herrialde guztietako ikasleak bildu ziren protestan.

OLALDE

bizarra' zioen pankartan.

Fernando Buesa jarduneko sailburuaren idazkariari talde honen eskaerak laburbildurik zeuzkan idazkia eman zioten Lakuan. Auziari buruz hitz egiteko Buesak noiz deituko zain geratu ziren ikasleak.

Legebiltzarrean ere entregatu zuten aipatu idazkia. Gaia bihar aztertuko du Legebiltzarreko

bozeramaileen batzarrak ohizko bileran.

Plataformako bozermaileak pozik agertu ziren deiak izandako harrerarekin. EAEko zentro unibertsitario gehienetan ikasleak greba deialdiari jarraiki kalera atera zirela informatu zuten eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kanpusetakoek gainera Iparralde eta Nafarroako orde-

kariak ere hartu zituela parte atzoko ekitaldian.

Une honetan Leioako Arte Ederretako auzia «larriena» dela aipatu zuten, baina arazoa oro har egitura unibertsitario osoari dagokiola erantsi zuten. «Manifestazio honen asmoa da une honetan Euskal Herriko Unibertsitatean guztiz beharrezkoak diren 64 irakasle eskatzea eta, halaber, urte anitzeko plangintza aldarrikatzea», deklaratu zuten eta «agintarien ardurarik eza» salatu.

Manifestazioan politikariren bat ikusi zen, Herri Batasunako Tasio Erkizia eta Karmelo Landa esaterako. Erkiziak Jose Antonio Ardanza eta Fernando Buesa aipatu zituen euskal adar unibertsitarioaren auziaren «erantzule zuzen» gisa.

Bi ordezkari izanen ditu IEHIEk Baionako Fakultatearen Batzordean

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Bi urtero egiten diren Fakultateko Batzordearen hauteskundeak asteartean egin ziren Baionan eta IEHIE taldeak bost ordezkariak bi lortu zituen. Lehen zikloarentzat Olivier Foix hautatu zuten % 18ek eta bigarren zikloarentzat % 39k bozkatu zuten Elena Etxelet-en alde. Partehartzea txikia izan arren, ikasleek % 27k soilik bozkatu zuten, beste fakultateekin konparatuz emaitzak positibotzat jo zituen IEHIEko batzorde iraunkorrak. Batzordean sartuz, barneko ibilmoldea ezagutzeko parada ona izanen zela zioen IEHIEk, informazio gunea Fakultatean ireki nahi duena. «Orain arte, kanpoko kideztat hartu gaituzte eta iragandako hauteskundeek legitimitatea emanen digute geroari begira» adierazi zuten.

Fakultateko Batzordea osatzen dute ikasle, irakasle, administrazio eta zerbitzuko ordezkariak. Pabeko Unibertsitatearen adarra izanez, batzordeari dagokio antolakuntza edo ikasketen plangintzak eratzea, Paben aur-

keztu baino lehen. «Ikasle gutxiak dakitelako zer den batzordearen xedea, 1.251 ikasletik 348k bainik ez dute parte hartu hauteskundeetan» damu zen ikasleek elkarrekin, azpimarratuz Frantziako partehartzea % 10ekoa izan zela leku gehienetan. «Baionako partehartze handiak gaituzte, batez ere ikusiz duela bi urte Frantziako antzekoa zela» adierazi zuten.

EHUn HAUTESKUNDEAK GAUR Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikasleek, berriz, klaustron dituzten laurogeita lau ordezkariak hautatuko dituzte gaur —goiz eta arratsalde— izango diren hauteskundeetan.

Gaurko hauteskundeetan EHUko ikasleek badute non aukeratu. Izan ere, orotara 57 zerrenda aurkeztu dira hauteskunde hauetara, iaz baino hamaika zerrenda gehiago.

Klaustorako ordezkariak aukeratzeko hauteskunde hauek ez dute interes handirik sortzen ikasleek artean. Interes falta agerian gelditu zen iazko ikasturteko

hauteskundeetan, orduan EHU osatzen zuten hogeita bost zentroetatik bostetan, ikasleek partaidetza ez zen % 10era heldu.



Hezkuntza Sailak Etorkizuna ikastolan bi langile kaleratu izana salatu du LABek

BILBO

LAB sindikatuak gogor kritikatu du Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Etorkizuna ikastolako jantokiko bi langile kaleratu izana. Sindikatu honen ustez, «arazoa are larriagoa da epaileak arrazoiak eman baitie langileei, zortzi urte lanean egon ondoren langile finkoak —eta ez behin-behinekoak, Hezkuntza Sailak dioten moduan—, direla ebatzi eta kaleratzea 'bidegabe' gisa izendatzean».

Hau dela eta, LABek «lotsagarri» irizten dio «legeak uzten duen zirrikitia erabiliz berriro lanera itzuli beharrean Administrazioak kalteordaina eman eta kalera botatzeari». Era berean, langile baten kasuan erabaki hori lege kanpoko dela salatzen du, «ordezkari sindikala izanik berari baitagokio kalteordain eta lanpostuaren artean aukeratzeari, eta ez patronalari».

Horrez gain, kaleratze hauek gurasoek janariagatik ordaindu beharreko kuotetan ere «eragin larria» izango duela gehitzen du, «Administrazioak ez baitu inor kontratatuko euren ordeztu eta ikastolako gurasoak arduratu beharko direlako bi langile kontratatu eta ordaintzeaz». Hau dela eta, zera eskatzen du LABek: «Administrazioak 'bidegabe' gisa izendaturiko kaleratzeen bidez botatutako behargin guztiak berriz onar ditzan».